

#09

INTIMITATEA, ZARTAGAILU

Itxaro Borda

Aipatzeko gomendioa || BORDA, Itxaro (2013): "Intimitatea, zartagailu" [artikulu linean], *452°F. Literaturaren teoria eta literatura konparatua aldizkaria*, 9, 42-55, [Konsulta data: dd/mm/aa], < http://www.452f.com/pdf/numero09/09_452f-mono-itxaro-borda-orgnl.pdf >

Ilustrazioa || Bárbara Serrano

Artikulu || Enkargatuta | Argitaratuta: 07/2013

Lizentzia || 3.0 Creative Commons lizentzia Aitortu - ez merkataritzarako - lan eratorririk gabe



Laburpena || Euskal Herrian eragin duten ideologia ezberdinek –jansenismoa, borroka armatua eta gaurko merkatu-piztia itxurekiko neoliberalismoa– ez diote toki askorik utzi emakumeari. Horregatik aztertu ditut Leire Bilbaoren obrak, Miren Agur Meaberen lanak eta Ana Urkizaren poemategia; narratzaileen artean Katixa Agirre, Beatriz Urruspil donapauetarra eta Eider Rodriguez, bai eta erreportaje antzera irakurtzen ahal dugun Jasone Osoreoren *Bi marra arrosa* delakoa. Emazte idazleon testuetako intimitatea beldurgarria da. Hondarrean okupatzeko geratzen zaigun leku huts bakarra. Intimitatea erresistentzia akta baten pare jaukitzen zaigu orrialdez orrialde, antsiaz, beldurrez, odolez eta desiraz itoa. Intimitearen erabilpena, euskaraz idazten duten emakumeentzat, bazterketaren ezpondatik beraien boza oraindik ere entzunarazteko eta aberriaren ereduaren deseraikitze baliabidea dela ematen du.

Hitz-gakoak || XXI. mendeko emazte idazleak | intimitatea | gorputza | desira | erresistentzia.

Abstract || The different ideologies —Jansenism, armed struggle, and the current monstrous neoliberal market— that have had an influence on the Basque Country, did not left much space to women. For that reason I analyzed the works of different authors (Leire Bilbao, Miren Agur Meabe and Ana Urkiza, Katixa Agirre, Beatriz Urruspil, and Eider Rodriguez), as well as Jasone Osoro's report *Bi marra arrosa*. The sense of intimacy in the writing of these women is terrifying. It becomes the last place left to occupy. Page after page, intimacy assaults like an act of resistance, drown by fears, blood, and desire. For women who write in Basque, intimacy becomes the instrument to make us hear their excluded voices and dismantle the nation's structure.

Keywords || 21st Century Women Writers | Intimacy | Body | Desire | Resistance.

*Bularrak lehertu guran nituen.
Euria ari zuen nire klitori gainean.*

Miren Agur Meabe
Azalaren kodea, 2000.

Emakumeek euskaraz idatzi literatura irakurtzen dugunean intimitatearen irudi anitzak begietara jazartzen zaizkigu. Batzuetan gaizki sentitzen gara: zergatik bizitza intimoko zerak paperean isuri?, eta bestetan galderak sortzen dira kontakizun horiek jendarteak isilduriko zerbait funtsezko azalduko baligute bezala. Plazer-iturri gisa ukatua den euskal gorputzaren bilakaera, adibidez. Berreskurapena, agian. Dena dela, azken aldiotako emazteen obrak uhergarriak direla aitortuko dugu.

2011n Bartzelonan antolatu zen Asociación Internacional de Literatura y Cultura Femenina Hispánica elkarteko kideen *Inhabiting Gender* deituriko kongresuan parte hartu nuenean, Otilia Cortezen txostena bereziki jarraitu nuen Erdialdeko Amerikako poesigintzan hiria eta aberria hurbiletik emakumeen gaiekin uztartuak zirela berresten zuela, Claribel Alegria (El Salvador, 1924), Giaconda Belli (Nikaragua, 1948) edo Ana Istaruren (Costa Rica, 1960) idatziak lekuko. Carlos Mejía Godoyek sortu sandinisten himnoa, guztiek nolabait The Clash taldearen kanta pare batekin abestu genuen «*ai nicaragua, nicaragüita*» hura erabili zuen bere solasaren bermatzeko.

Egun zoriotsu haietan halaber Ileana Rodríguez nikaraguar jatorrizko Ohioko unibertsitateko irakasle irribarretsu bezain eskuzabalaren ezagutza egin nuen. Amaia Lasaren 1988an Pamielak publikatu *Malintxearen Gerizpean* ipuin-bildumaren berriz leitzeko gutizia hazi zidan eta bistakoa zenez bere lanak hobe ikertzeko, molde batez pentsatzen nuelako behialako nire kezken, eskakizunen eta duden argitzeko baliagarri izango zitzaizkidala. Baionara itzultzean Claribel Alegriaren *Carta a un desterrado* buruan hitzez-hitz iltzatzen zitzaidan bitartean Ileana Rodríguezek Minesotan plazaratu bi libururen jabe egin nintzen denbora gutxi barne.

Ordutik badakit euskal emakume idazleek, euskal eta emakume agergailuak gustatzen ez zaizkien arren, aluak, haurdunaldiak, sabelak, sentimenduak, hiltzeko jaidurak, ihesak, sexu-jarduerak mila bider gordinki azaltzen dizkigutenean, hondamendi etengabea bihurtu den gure lurraz, aberriaz eta sozietateaz mintzo zaizkidala, armekiko gerra orokorrak itotzen duen generoen arteko gatazka zurrunaz oro har. Intimitatearen eremua dinamitatua da eta beste oinarririk ez dugu etorkizunaren eraikitzeke. Hori da ikerketa honetarik jazartzen den ondorioa.

Managuako parkeetako kolibriaren txio-txio graziosoak agian

Euskal Herriko sasetako urretxindorraren auheneren argian entzun daitezkeela sinestera iritsi naiz testu labur eta menturaz poetiko hau idaztera noan unean. Hemen ere, Ileana Rodriguezen ildotik, Erdialdeko Amerikako toki askotan bezala, emazteek kometitu literaturaren bidez emakumearen, gerrilaren eta amodioaren arteko oihala (ber)josi dezakegu, etxea, baratza eta aberria zerk edo nork dituen lotzen ikertzea baztertu gabe. Mendeak eta mendek dira gerran gabiltzala ehun mila arrazoiengatik, Erdi Aroko jaun-konde ospetsuen gatazketarik hasi, erreforma eta kontra-erreformaren garaietan barna, XIX. mendetik honako lurraldearen alde-aurkako borroketaraino. Oraintxe utzi ditu armak ETA erakundeak. Egoera egokia da beharbada iragan komunaren irakurketa literario berriaren egiteko. Ekografiagailua ala *scanner*-ra erabiliz Leire Bilbaok legikeen eran.

Atseginik nehoiz gozaten ez duten gorputz mutilatuz, gutxietsiz, menstuz eta mutuz beteak dira gure liburuen orrialdeak, izan gizonezkoenak ala emakumezkoenak. Biolentzia erraldoia jazartzen da paperean etzaten dugun ele bakoitzetik, elea bera, bortitza jasan duen hilotza bailitzan. Tragedia ugariak, samurkiro ahoskatuak alta, ongi ikasiak garelako, garatzen dira poetek eta izkiriataileek beraien idatziak leitzen dituztenean publikoan: ardura txalotzeko ordeztu gure baitara negarrez urtu beharko genukeela uste dut. Baina negarra, nola esperma eta Monique Wittigek goستن zuen plazerez busti aluaren ziprina, gorputzaren sekrezio ahalkegarria baizik ez da. Mistika aberrizaleak, ez errateko abertzaleak, aitzinako belaunaldiak zitzikatu zituen moduan, kalbarioko hamalau estazioak pairatzera eta egunerokoa, euskararen bezain euskaltasunaren izenean mortifikatzera garamatza. Gure kulturaren zatia da, date behintzat, martirioak, presoak, exiliatuak nolabaiteko normaltasunez –zertan datza egiazko normaltasunaren eredu?– bizitzen direnak baino gorako aldareetan edukiko diren bitartean. Etsai bizi gisa seinalatzen ditugun bi estatu auzoek gainera ez gaituzte biktima sentitzeko bidetik aldentzen biziki laguntzen.

Muskildiko 1991ko Harispe pastoraletik ilkiriko Pier Pol Berzaitzen *baratze bat nahi deizüt egin* melodia ukigarri eta eztiak orduan, dudarik gabe hiru minutu eta laurdenez, gure bihotzak sakoneraino baketzen, jabaltzen eta berotzen ditu, aipatzen duen baratza sekula ukan ez dugun paradisuko salbatze-lur moldean irudikatzeraino. Haurtzarora eramaten gaitu, gerrarik eta sarraskirik ez zegoen denboretara, elizetan sudur beteka hartzen genuen bezperetako intsentsu usainaren oroitzapenetara, aspaldian desagertu mundu baten erraietaraino, gure zinezkotasun abandonatuaren muinera hain zuzen. Pier Pol Berzaitz, Carlos Mejia Godoyen pare, solaskide daukan emakumea bitartekari, amultsuki mintzo zaio maite duen herri sufrituari. Gauza arraroa.

Gogoan ditugu Jon Miranderen *Haur besotakoa* nobelako azken orrialdeak: Teresa itotzen doa itsas ertzeko uhinetan. Irakurketatik lekora hilotza geratzen zaigu ondorengo trabagarri. Irudi garrantzitsua da euskarazko literaturaren ulertzeko. Aberri emakumetuaren gorputza hilotz antzera baizik ez dezakegu itxura, gizonezkoen desira gosetien eta jendartearen bortitzaren ekinez suntsitua. Gerrilla garaietan, badira bi mende kasik giro hori nagusi dela gure herrian, emazteak leku gutxi du, non ez den gizonaren papera jokatzuz bere aldian sasietan zein borroka lerroetan maskulinizatzen, eta orduan hainbat gaizto, amore ematen badu ordua baino lehen. Hor dugu beti 1986an Ordiziako plazan erakunde armatuak erail Yoyesen adibidea. Maila ezberdinetan izan arren Teresaren eta Yoyesen hilotzak uztartu daitezke euskal munduaren ekintza-ardatzak laburbilduz, debekatua dirudien intimitate modu batek sortu dezakeen mehatxu orokorrari ihardesten diotelako.

Salbuespenak salbu, emakumea, gehienetan, euskal nobelagintzako absentzia handia da. Armarik ez duen zulo beltza. Ezagutzen ez den kontinente itsua. Kristautasunik biolentoenak gizaldiz gizaldi moldatu hilotz bat, bekatu eta desohore iturri, belaunaldiz belaunaldi betidanik heztekoa dena hondarrean. Joseba Gabilondok ederki erakutsi zuenez 1980 hamarkadako emazte idazleen obra ikertuz, emakume pertsonaia gehienak argazki negatiboan ageri dira, ihesi joan zaien senarra, gizona, mutil lagunaren etengabe aiduru. Berdinki, Atxagaren 1995eko *Zeru Horiekeko* figura emazte-zonbia da, bizitzaren zati luzea kartzelan pasatu eta Bartzelona zein Donostiako karrketan dabilela, errealitateari arrotz, traidore gisa seinalatua, aterabiderik ez duen hilotz ibiltari bat. Gustatu zitzaidan Aizpea Goenagak 2005ean zuzendu filma, gizonezkoek ez bezala, emakume borrokalariek jasaten duten bakartasun fisiko-intelektuala ederki gatibatzen zuelako. Arras heroia izateko etsaien tiropean hil beharko zuen. Eta oraino... nor da oroitzen ETako emakume sakrifikatuez? Susana Arregi Maiztegiz, demagun?

Hizkuntza halaber hilotz bat da. Euskara ama hizkuntza dela errepikatzen da. Txapeldun bilakatu zen saioaren bukaeran Maialen Lujanbiok ukigarriki kantatzen zuen mintzairaren transmisioan – baina bere ahoan ez zitekeen bakarrik elea noski- eragiten zuten emakumeen haria: amama, ama, alaba, ahizpa... Hizkuntzaren hilotza emazteen bizkar-esku utzi eta gizonezkoak mediku forenseak bailiran altxatzen zaizkigu, hala nola Koldo Izagirre, 2010ean Susan plazaratu zuen *Autopsiarako Frogak* saiakera-collage interesagarriarekin. Ustel urrinarekiko herio iragarriaren kronika eskaintzen zigun. Puntu honetan galdera zera liteke: nola idatzi, nola bizi, nola iraun aditz hilotz bat ezpainetan? Noiz zilegituko zaio euskarari izaera animatu maneran zutitzeko eskubidea? Intimitate larrutua berraurkitzea komeni al zaigu, *gu* handios lehertzailearen atzean dauden *ni* ugariei bidea irekiz?

Bizkitartean non daude euskal nobeletako gizonezkoak? Kirmen Uriberen eleberri arrakastatsuan Bilbotik New Yorkera doan hegazkin baten giro etereoan gogoetari dabil edo Anchorageko Alaskako unibertsitatean irakasle Iban Zalduaren *Euskaldun guztion aberria* izeneko lanean, halaber Ur Apalategiren *Fikzioaren Itzerrak* ipuin bildumakoa. Edo oraino Mikel Antzaren orrialdeetan kartzeletako ospitaleetan nahiz abandonuaren mila aldaerek sortu minak zerrendatzen saiatzen Iñigo Aranberriren *Zamaontzian*. Norberaren nortasunaren errealizatzeko alabaina dirudi Euskal Herritik urrun bizitzea hobe dela. Han, atzerri kosmopolitan, hiri handi zein ertainen anonimotasunean, pertsonaiek ligatzen ahal dute lasaiki, gordean, etxean haurrekin utzi andre-sehiak –aireportuetaratzen laguntzen dituzte ordea– ahantziz. Itzultzen direnean berraurkitzen dituzte, joatean bezain fidelak, isilak eta apalak. Emakumea garai batean gudariaren atsedenerako baliagarria baldin bazen, jada nazioartean pinpirin dabilen goi-mailako irakaslearen pausalekua da. Erran behar da dagoeneko euskaldun idazlea ez dela gehiago duela hiru hamarkadako gosaio alderraia edo apez mutxitua. Zurubi sozialean gora hupatu da eta horrek ikuspegia aldatzen du argiki.

Pertsonaia horiek Euskal Herria begi bereziz dakusate: borrokaren erruz hondamenditu lurraldea batzuetan nostalgia apur batez troxatzen dute, hor baitira omentzekoak diren arbasoak, baina gehienetan ahalkeari nahasten zaion zirika, ironia, burla da nagusi. Egunerokotasun dorpearekiko distantzia lantzea baimentzen die urruntasunak. Hargatik ez dute lortzen amainatzen dituzten neskak ohera ekartzea larrua jotzeko baizik ez bada: atzerrietako esperientziak ere huts geratzen zaizkie jaioterritik kanpo intimitatearen dasta debekatua bailitzaien, Iban Zalduak marrazten duen Joseba Anabitarteren kasuan, demagun. Gizonezkoen zein emakumezkoen euskarazko literaturan larru-jotzea idazteko ezintasun larria nabaritzen da oraindik. Intimoaren azaltzeko hitzik ez edo hitzen beldur bagina legez. Nobela askotan hegian gaude junta gertatuko den esperoan, egoera deboilatuan dagoen aberriarekiko larrualdia –bake orgasmikoa?– ez dela nehoiz agituko sumatzen dugula, aberriarekiko ukimenik ez baitugu gehiago.

Iban Zalduaren liburuan, bai eta Beatriz Urruspilen *Gizaki Bakartiak* obrako kontakizunetan, agertzen da homosexualitatearen izua: Joseba Anabitarterekin oheratzeari uko egiten dion neskatxa lesbiana bide da eta Beatriz Urruspilen emakume figura bakartiak lotsa dira gizonezkoek gaizki jujatuko dituztela, alegia, bakarrik dabilzalako lesbianak edo *gouine* delakoak direla. Harrigarria dena gizonen zein emazteen aldetik hain homosozialki antolatu Euskal Herri honetan: koadrilak, taldeak, komandoak, guztiak genero bereizketa zehatza ardatz osatzen dira haurtzarotik haste. Fobia horrek halatan zalantzan jartzen du indarrean den derrigorrezko heterosexualitatearen logika.

Badakigu engoitik ez dagoela emakumezko literatura berezirik. Emazteen ikuspegitik idatzitakoa baizik. Gizonezkoena berez unibertsalista baldin bada, emakumeena, Wittigek ederki azaltzen zuen lesbianena bezala, minoritarioa da. Mendeetan ahots bat baino ez da entzun, gizonena, apezena, notableena. Alde horretarik euskarazko literaturaren ekoizpen lur beltza aniztu dela ohartzen gara. Egoera ezberdin kontsideratzera garamatzaten boz berriak sartu dira kontzertu orokorrean. Hargatik emakume-idazlea bere lekuan geratu da, ohean, etxean, baratzean. Unibertsaltasunerako urratsa ezin izan du eman, perpausa eta bere interesak zeharo maskulinizatu gabe. Hilotzaren zaintzera kondenatua dela dirudi, kulturaren elementu emeak etengabe lantzerantz, eztitasuna, amatasuna, maitaletasuna besteak beste. Hauek dakarten biolentzia zama ukatu barik. Zailtasun aipagarria nabaritzen da emazteen testuetan, oraindik gizonezkoen esku diren lanaren mundua, politikarena ala borrokarena fikziora pasatzeko orduan. Oinarrizko puntua da.

Azken hamarkadan plazaratu zenbait liburu hautatu ditugu gaurko ikerketa poetiko-politikoaren eramateko. Idazle gisako ibilbide emankorreko egileak dira guztiak: Leire Bilbaoren *Ezkatak* eta *Scanner* obrak, Miren Agur Meaberren *Larruaren Kodea* eta *Bitsa Eskuetan* lanak eta Ana Urkizaren *Bazterreko Ahotsak* poemategia; narratzaileen artean Katixa Agirren *Habitat*, Beatriz Urruspil donapauletarraren *Gizaki Bakartiak* eta Eider Rodriguezen *Katu jendea* ipuin bildumak aukeratu ditut, bai eta erreportaje antzera irakurtzen ahal dugun Jasone Osororen *Bi marra arrosa* delakoa. Lagin hertsia dela erran lezake batek baina uste dut argigarria ere badela XXI. mendean garatzen doan feminitatearen inguruko kezka aztertzeko, gizonezkoek eta emakumezkoek elkarri finkatzen dizkioten eremuen neurtzeko, Leire Bilbaok olerki batean errepikatzen duen «*nagoen lekuan irauten irakatsi didate*» doloretzuaz haratago.

Marijan Minaberri, Amaia Lasa, Arantxa Urretabizkaia edo Laura Mintegiren belaunaldi urratzaile emankorraren ondotik, idazle esperientziaz eta jakitatez apaindurik plazaratu dira izkiriatazaile hauek, emaztearen (euskaldunaren) bakartasun zantzuak ahoan bilorik gabe deiadartuz. Ez dira, ez gorputzaz, are gutxiago jendeak errango duenaz beldur, eguneroko bizitzako gauzak –hilerokoak, abandonuak, amatasun bideak– paperean etzaten dituzte zohar. Idatziaren eta beraien izaeraren artean leizea zabaltzen dute, salbagarria eta literaturarako onuragarria den distantzia. Agian autofikzioa dute ekoizten, baina irakurlea intimitatearen azalpen biluziaren haraindian dagoenaz galdezka ibili daiteke: zertaz mintzo dira aluaren hezetasunaz ari direnean? Gorputza, emakumeena bereziki, herriaren zein lurraldearen metafora al da? Ama hilak negartzen ditugunean usteltzen doan aberriaren dolua garraiatzen ote dugu? Idazle hauen hitzetan galtzen naizenean eskakizunok naute inarosten.

XX. mendeko emakume euskaradunen literatura herrian errotuagoa zela iruditzen zait. Ingurumenak eta paisaiak gehiago agertzen ziren edo bederen irakurketan zehar asmatzen ahal genituen. Baserri giroan emazteen egitekoa finkatuagoa zen, gorputza ez zela aipatzen, bazenik ere ez. Ama eta etxeko andere handiosak ziren, ezkondu baino lehen Piarres Narbaitz kalonjeak 1955an plazaratu *Kattalinen gogoetak* leituz hezteko neska gazteak edo Elizanbururen kantuetan truke jokoan ausartzen zebiltzan mutxurdinak. Adinean aitzina joatearekin eta ile zuriak agertzearekin salbatzen zen emakumea. Ez da emazte zaharrik azaltzen gaurko egile-emeen orrialdeetan. Arantxa Urretabizkaiaren 2010ko *Hiru Mariak* izeneko nobelak hutsunea bete zukeen, behialako nekazal giroko elkartasun sinbolikoak eta alarguntzagatik aurrera bizitzeko jaidurak eguneratuz. Orduko emazte pertsonaiek gizonaren falta neurri batean onartzen zuten: gerrara joana zen, kontrabandoan ari zen edo arratsaldeak pasatzen zituen lagunekin ostatuan. Industrializatzeak ekarri zuen urbanizatze oldean ez ziren egoerak hainbat aldatu, baserritar eta hiritar ohiturak nahasi baitziren halako oreka ahul batean. Hiriaren eta baserriaren artean badabilta dagoeneko Beatriz Urruspilen neskatxa eta emazteak garatzen doakien bakartasunak kateaturik. Hasia da iparraldean, hegoaldean bezala, jendartea bihikatzen, solilokatzen eta globaltzen generoen mugak dudaraziz.

Lurraren sentimendua femeninoa den arren, nazio-aberriaren kontzeptua bermatzearekin maskulinizatu da euskal sozietatea, emakumeak arras kanpo utziz. Egunkarien azaletan gizonak baino ez dira ageri. Zuhurritz ezagunaren ildotik, gauza serioetara pasatzean, hauek dute beti azken hitza, derrigorrezko adibide dira, eredu eta emakumea, idazlea izanagatik, gehienetan *potichearen* tokian konfinatua dago. Dirua baizik libre ez den neoliberalismo garaiotan maskulinizazio mugimendua indartzen doa 1968tik hona, feminismoak garrazki irabazi eskubideak zalantzan jarriz. Ez da jada gozo edozein klaseetako emaztea izatea lantegietan, politika alorrean, mass medietan, kirola mailan edo etxeetan berean gizonezkoen biolentzia haurren eta andreen aurka arraiki altxatzen denean.

Emakumea, migrantearen edo lumpen-langilearen pare, neoliberalismoaren galtzaile entzutetsuetarik da. Gorputzak, pentsamenduak, klaseak eta generoak zitzikatzen dituen produktibismoaren aldarean sakrifikatua delarik feminitatearen folklorea nagusitzen da Ileana Rodriguez nikaraguarrak erakutsi eran: edertasuna, samurtasuna, isiltasuna eta umiltasuna eskatzen zaizkio pertsona emeari. Eta pertsonaiari. Ez dugu asmatu *serial killer* emerik. Uxue Apaolazak *Mea Culpa* nobelarako moldatu eta hiltzea xede duen Lur haren figura, Jennifer Tilly eta Gina Gershonek jolastu zuten Wachowski anaien 1996ko *Bound* filmaren saihetsean ezarri dezakegu!

Poesia *hilda dago baina ez naiz ni izan* idazten zuen Sarrionaindiak 1991n kartzelako poematarik batean. Uste horrekin tematzen gara geroztik, herriko semerik baliosenak –diotenez...– presondegietan edo exilioan higitzen diren bitartean aberrian bizitzeko atsegina debekatua balitzaigun bezala. Gramatika arruntezko hogeita zazpi hitz baino ez zituen trikua gainera, Atxagaren kotxearen argiek ilusiturik lehertua izan zen. Bidera edo plazetara ateratzea zaila da ondorioz, denetan herioaren mehatxua mamitzen doalako. *Tabula rasa* batean gaudela ematen du: borroka latzaren minean Etiopia osoki suntsitu zen eta Harrizko Herri Hau galernaz galerna porroskatu. Dagoeneko nora jo ez dakigula, emakume idazleek digute xendra erakusten, intimitatea begipeetan hedatuz, hilotzaz behintzat gozatu gaitezen. Euskara transmitituz etorkizuna segurtatzea galdatzen zaion emazteak mendeetan zehar jakin du alabaina kaosa berrantolatzen, hutsetik hutserako norabidea finkatzen eta behatza minik minberena zetorren zaurian sakatzen.

Bazterretan bada hantzen doan ideia bat, behin baino gehiagotan entzun dudana: feminizatzearekin euskal poesia domestikatua iristen da plazetara, agian bertan aipatzen diren gauzak nagusiki domestikoak direlako. Emazteen aferak, hots. Urrun gaude beraz Arestiren olerkien aire biblikoetarik edo hirurogeiko hamarkadaren bukaeran Amaia Lasak aldarrikatzen zuen *a, e, i, o, u berri* rimbaudiar haien aizolbeetarik. Orain etxeetako hara-honaratak dira aztertzen, oheetako kontuak, emakumeen zereginak, haurrak eta noski gorputzak. Gizonezko poeta gazteek ere urratzen darraite emazteek behiala ireki ildoan, Jon Benitoren *Autoerretratu gaurkotua* edo Iñigo Astizen *Infinitua dastatzeko* aintzakotzat hartzen baldin baditugu. Intimitatea da hondarrean okupatzeko geratzen zaigun leku huts bakarra, bereziki euskaraz. Batzuek samurkiro egiten dute, besteek ironia eta sarkasmoa erabiliz. Baina hor dago emakume idazle lerroek hitzez hitz finkatu, zedarritu eremu kaotikoa.

Iban Zaldua kritikariak naski 2010eko abenduko *Berriako* bere artikuluan euskarazko literatura maskulinista baten premia aldarrikatzen zuen. Matxistagoa, hots. Irakurlea *voyeur* izatearen ezpondetarik bezain intimitatearen agerpen isurkoietarik aldentzeko. Probokaziorako jaidura paregabeaz arazoa seinalatzen zuen: uhin berriko euskal herriko emazte eta gay izkiriatazaileek ekoizturikoak gizonezkoaren jokia dudarazten du, generoen ohiko balioa eta banaketa. *Euskaldun guztion aberria* eleberriko Joseba Anabitarte irakaslea Alaskan dago Euskal Herri fantastiko-fantasmatico baten historia harilkatzen. Emez eme dabilela Don Giovanni gaztiga gaitza bezala, gizonetan gizonena den Anabitartek sexu mailako zalantzak pairatzen ditu bere buruari aitortu nahi ez dizkion arren. Nortasunarenak bezain uherrak zaizkio generoaren ezpondak. Etxeko bidea hartuko du ezkontzaz gatibatu emaztearengana itzultzeko. Intimitate aspergarrian datza segurtasuna.

Aukeratu ditugun emazte idazleen testuetako intimitatea beldurgarria da. Thriller zatiak eskaintzen dizkigute idatzi eta olerki bakoitzean. Aluaz haratago ez lihoakeen etorkizunaren dasta alegia. Etxea, ohea, baratzea eta ondorioz, aberria izuaren kokalekua da. Irakurlearen aurpegira zartatzen doa intimitatea orrialdez orrialde eta elez ele. Plazatik eta harreman sozialetarik baztertu emakumeak ez du ateratzeko modu askorik, bere literaturak merkatua betetzen jarraitzen duen artean. Herriaren baitan oro har, salbuespenak salbuespen, emazteen bizkar gertatzen den zokoratze etengabearen sintoma dela ematen du. Emazteak, gizonek bezain diskurtso politikoek abandonaturik, gehienetan *muller dolorosak* dira poesietan eta ipuinetan. Behialako marxismoaren edo gaurko neoliberalismoaren ideologiek maskulinoa hobesten dute, ekintza, garaipena, indarra eta jabetasun ekonomikoa. Kirola da hori hobekien agertzen duen alorra. Josh Bazell fisikari-nobelagile amerikarrak dio fisikoki zein mentalki ahulak izatea ez zaigula gustatzen eta horregatik dugula, dopatuz jokia faltsutzen duten arren, atletak eta txapeldunak ikustea maite. Tasun femeninoak gutxiesten ditugu eta bortizkeria, erreala ala subliminala, erabiltzen dutenak goستن. Intelektualak gorrotatzen dira, gizaldi *bling bling* honen debaldeko hegal femeninoak baino ez bailiran.

Gaur egungo euskal emakume izkiriatazaileen etxea ez da baserria, noiztenka bigarren egoitza suertatuagatik. Bi mende laurdenetako borroka ezberdinetarik landa, gure jendartea arras hiritartu da, *habitat* delakoa aldatu zaio eta neurri batean zibilizazioak salbaikeriari urratsa hartu dio. Izatea oraindik paperean baizik ez duen aberriaren osatzeko elementuak bilduak direla erran genezake: lurraldearen eremua finkatua da, merkatu batekiko literatura sortu da europar irizpideen arabera moldatu eta mundua kulturalki konkistatzeko prest dagoen elite ikasi baten eskutik. Kirmen Uriberen, Ur Apalategiren edo Iban Zalduaren pertsonaiek jauzia egiten dute arraiki, beraien andreak sukalde tepoetan mutxitzen utziz. Beste hainbat gizonezko idazleek herriaren minak –gerra zibila, ETaren ekina, sozial gatazkak– karrakutzen ari dira, hauen lanetan emakume figurak bekan azaltzen direlarik. Dena dela, familiaren eredia puskatu da hondar hamarkadetan, familia –aitaren, anaiaren, senarraren– legearen iturria zela eta aberria irudikatzen zuela hasieran. Emakume idazleek idealizatzen eta deitoratzen ez duten aitzinako egoerekiko memoria malenkoniatsua dakarkigute.

Miren Agur Meaberen 2010eko *Bitsa eskuetan* bildumako “Hobia” olerki luzea izugarria da karia horretara. Ama zenduaren biografia xehea moldatzen du poetak, amari sekula ez bezala bere bitzta lehen pertsonan bihikatzea baimenduz eta desagertzen doan belaunaldi baten omenaldia orraztatuz. Dagoeneko Miren Agur Meaberen lumapean isurtzen dena, iragana da erabat.

Belaunaldi berrietako poetek beraien buruen berriz definitzeko premia nabaritzen dute, gorputza izendatuz, plazer eta min iturriak finkatuz, hizkuntza intimitatearen azkeneraino bilustuz. Neurri bateraino xendra berdinetik dabilta jada gizonezkoak eta emakumezkoak, neurri bateraino ezen gizonezkoak multzo handiago baten partaide dela dakielako: *nire historia baizik ez da eta hori ere ez da nirea bakarrik* dio Jon Benitok *Bulkadak* bildumako azken olerkian. Emaztea, aldiz, izendatzea bukatzen duen bezain laster *phallus* eskasa garraski nabaritu dezakeen nor antzera funtzionatzen hasten da. Gorputzaren funtsa ez du unibertsaltasunaren errateko erabiltzen, baizik eta unibertsaltasuna edonon –frantses mintzairan bereziki txikitik ikasi dugulako apalestearen gramatika eskoletan «*le masculin l'emporte sur le féminin*» astokatuz...– itxuratzen duen gizonezkoaren zerbitzuko, enpresetan, gerra zelaietan, sasietan onartuak izateko gizonezkoa bilakatzen dela amestuz. *Phallus* sinbolikoduna, hots.

Intimitatea ardatz, emazte idazleen helburu ezkutatuetarik bat aberriaren ereduaren deseraikitzea dela ematen du, gero literaturaren bidez honen oinarri berria irakurlegoari eskaintzeko. Ileana Rodriguezen arabera, literatura prozesu historikoen diskurtso teorikoen osatzeko lekua da, *pathos* eta logika gogorrik gabe, nostalgia, malenkonia eta kontenplazioa zilegitzen duena. Pertsonaiak solaskide absenteei, ahots isilduei, mututuei, gorputz sarraskituei, herriaren historia zeharkatzen duten masa ala emakume diren besteei mintzo dira orokorrean, pijama soilaz jantzi nor bakun baten aizolbetik. Castillo Suarezren poemetan aipatzen den *pijama* berdina aurkitzen da Katixa Agirreren lumapean “Pijama festa” izeneko ipuinean, bai eta hainbat aldiz ere Amaia Iturbideren hondar olerki bilduman. Irudi luke (euskal) emakumeak ez duela gehiago etxetik edo ohetik jalgitzeko gutziarik eta horrela erakusten duela gizartearekiko desadostasuna, 1969an Montreal eta Amsterdamen Vietmaneko gerra salatzeke Yoko Ono eta John Lennonek egin zuten *bed-in* ez-biolentoa errepikatuz. Aberria jada ohantze baten neurrikoa baino ez da.

Emaztearen sexualitatea literaturan ukatua denez, hizkuntzak ere ezin du sexua erran gaitzeslea izan gabe, *phallus* eskasaren zama lehertzailearen atzamarretarik eta bakartasunetik askatuz, amatasunaren bidez, bizitzaren alfabeto berri baten eraikitzea helburu. Azken urteotan amatasunaren xendrak elez ele azaldu dizkiguten bizpahiru obra erori zaizkigu begipeetara: emakumeak esperantzetan, sabelen borobila, ametsak eta dudak, erditzea dena odol eta garrasi, haurdunaldiaren etapa guztiak xeheki eskaini zizkiguten Jasone Osoro eta Arantxa Iturbek, besteak beste. Liburu interesgarriak dira amatasuna oinarrizko eta borondatezko ekintza gisa aurkezten digutelako, emaztearen joko tradizionala berretsiz baina gordinki bezain ausartuki mintzatuz unibertsala eta isildua den

prozesu fisiologiko horretaz.

Emakumeekiko harremanek orokorki leku gutxi dute euskal literaturan, non ez den azpimarratzen haien absentzia pornografikoa. Aberria eta hizkuntza zauritan edo hilak asmatzen dira. Gabriel Arestiren “Nire aitaren etxea” handiosean etsaiak zatikatzen duen zera balizko emakume gorputza da, pairamen iragarrien atarian behingoz feminizatua den aberria. Gizona saihetsean geldirik dago, gertatzen ari dena kontatzeko: lekuko eta ez salbatzaile. Emazte idazleen liburuetan agertzen den intimitate oldeak kontraste bat sortzen du, gohairaino batzutan. Intimitate hori ekilea da, elekaria, ukaturiko gorputz larrutuaz mintzo da, bai eta ametarik alabetara etengabeko isiltasunean garatzen diren emazte leinuruetaz. Idazlan guztiak emakumea kalitzeko konplotaren trabatzeko plazaratzen direla irudi luke. Intimitatea halaz erresistentzia akta baten pare jaukitzen zaigu orrialdez orrialde, antsiaz, beldurrez, odolez eta desiraz itoa.

Katixa Agirren zein Eider Rodriguezen ipuinetan izua nabaritzen da. Guztiek etxe barneetako giro hats bahigarria azaltzen dute maisuki. Baldintza horietan ez du nehork bere buruaz beste egiten eta krimenak konplitu gabeak geratzen dira Katixa Agirren “Jaun eta jabe” istorioan bezala, pertsonaiak tipula bipiltzen duela labana eskutan daukalarik... Sukalde zein ganbaretako angustia hilgarriak ezin zaizkio inori salatu eta hor dago bakartasunaren kozkarik nabarmenena: pijama jokoan higitzen diren bi neska-adiskideek ez diete elkarri beraien baitako egarik azaltzen. Emakumea bertan datza beraz bakarrizketan, besteek eta berak ere arras abandonatua, historiatic bera bezain kanpo dagoen gizonenganako desiraz zer egin ez dakiela gehiago, literatura duela jada egoeraren agertzeko baliabide ziurrena. Pertsonaia espektralak sortzen ditu euskarazko literaturak. Gure errealitate(ar)en ispilu agian.

Leire Bilbaoren *Scanner* poema sailak erakusten digu idazleak zientziaren aitzinamenduak deitzen dituela borroka maskulinoaren tabuaren erruz gutasunean airegabetu ni haren berraurkitzeko. Skanerrak ez dio gezurrik. Halaz aitaz eta amaz oroitzekoa da bere nortasunaren bermeak finkatzeko, kontzebitua izan uneaz zehazki, «*inork ez (bait) digu esaten hiltegiak dauzkagula zain*». Intimitate morbidoaz bizitzaren funtsa harilkatzen doa eta funtsaren hutsala du poetak galdekatzen. Ondorioz, norberarekiko intimitatea iratzargailua izan daiteke, irakurlearen aurpegira zartatzen ez baldin bada bederen. Izkiriartzen duten emakumeek diskurtso borobil xeheak osatzen dituzte, unibertsaltasunetik urrun baina hain hurbil, zirkulu biziosoa norbaitek hautsiko dien esperoan, nahiz eta orrialdeak bere neutraltasun unibertsalaz betez erantzungo dien ni maskulinorik ez den nehon altxatzen. Alderantziz, bada halako terrore mutu bat, espazioak, aburuak, geografiak eta mintzairak isiltzera behartzen dituena. Intimitatea zatiari bide zaio zilegitzen, orokorraz hitz egiten

trebatzeko eta ausartzeko abialeku bakar gisa.

Bukatzeko erran dezakegu intimitatearen erabilpena, euskaraz idazten duten emakumeentzat, bazterketaren ezpondatik beraien boza oraindik ere entzunarazteko baliabidea dela. Bidaia eder eta ukigarriaren egiteko aitzakia eskaini diguna gaur alabaina. Zuloez, ipurdiez, klitoriez eta aluez, aberriaren aldarean sakrifikatuak ez diren gorputzez hots, mintzo zaigun literatura anitzen gustuko ahula bezain epela da, aldarrikatzen duten ahoz, ibili dabiltzan oinez ala goratzen diren esku-mutur bilduez ari denaren aldean. Noizbait, aberriari genero neutralen ezaugarriak txertatuko dizkiogunean, ohartuko gara menturaz bata bestearen aberasgarri datozkigula eta denek kinka larrian datzan feminizaturiko herriaz hitz egiten digutela. Mendeetako *marasmus masculinismus* haren ekinaren ondoriozko *no women's land* baten seinale dira euskal emazteen idatziak, intimitatea hazteari esker lantzekoa dukegun alorraren salbatzeko saiakera bizitorea.

Euskal Herrian eragin duten ideologia ezberdinek –jansenismoa, borrokaarmatua eta gaurko merkatu-piztia itxurekiko neoliberalismoa– ez diote toki askorik utzi emakumeari. Gure amen belaunaldiko frankok baserriak utzi zituzten Parisen edo Bordelen sehi ibiltzeko, dirua ateratzeko noski, baina bizitza libreago baten eramateko ere: debeku gutxiagorekin, alaitasun partekatu gehiagorekin. Beraien literatura intimitate ikuskoiaz bazkatzen duten idazleak behialako neskame haien ondorengoak dira. Transgresioa eta iraultza baratzeetan, etxeetan, sukaldeetan eta oheetan egiten dute, poesia, ipuina baliabide, hitza eta gramatika lanabes, herritik urrundu beharrik gabe. Gorputzaz mintzo dira eta gorputz horrek kinka larrian dagoen aberria, agian mundua, sinbolizatzen du, Courbetek 1886an pintatu *L'origine du monde* hartako alu miresgarria delarik oraindik ere egoeraren ulertzeko giltza bakarra.

Bibliografia

- AGIRRE, Katixa (2009): *Habitat*, Donostia: Elkar.
- ANTZA, Mikel (2010): *Ospitalekoak*, Zarautz: Susa.
- APALATEGI, Ur (2010): *Fikzioaren Izterrak*, Zarautz: Susa.
- APAOLAZA, Uxue (2011): *Mea Culpa*, Donostia: Elkar.
- ARANBARRI, Inigo (2011): *Zamaontzia*, Zarautz: Susa.
- ARESTI, Gabriel (1986): *Harri eta Herri*, Zarautz, Susa.
- ASTIZ, Inigo (2012): *Baita hondakinak ere*, Zarautz, Susa.
- ATXAGA, Bernardo: *Zeru horiek*, Donostia, Erein: 1995.
- BENITO, Jon (2010): *Bulkada*, Zarautz: Susa.
- BILBAO, Leire (2006): *Ezkatak*, Zarautz: Susa.
- BILBAO, Leire (2011): *Scanner*, Zarautz: Susa.
- ESNAOLA, I. (2010): *Galerna*, Donostia: Elkar.
- GABILONDO, Joseba (1998): «Del exilio materno a la utopia personal. Política cultural en la narrativa vasca de mujeres», *Insula* 623, 32-36.
- ITURBE, Arantxa (1999): *Ai Ama*, Irun: Alberdania.
- ITURBIDE, Amaia (2008): *Labirintoaren orduak*, Donostia: Erein.
- IZAGIRRE, Koldo (2010): *Autopsiarako frogak*, Zarautz: Susa.
- LASA, Amaia (2000): *Malintxearen gerizpean*, Iruña: 1988.
- MEABE, Miren Agur (2000): *Azalaren Kodea*, Zarautz: Susa.
- MEABE, Miren Agur (2010): *Bitsa eskuetan*, Zarautz, Susa.
- MIRANDE, Jon (1970): *Haur besotakoa*, Donostia: Lur.
- NARBAITZ, Pierres (1999): *Kattalinen gogoetak*, Donostia: Elkar.
- OSORO, Jasone (2009): *Bi marra arrosa*, Tafalla: Txalaparta,
- RICH, Adrienne (2010): *La contrainte à l'hétérosexualité et autres essais*, Gèneve: Editions Mamamelis.
- RODRIGUEZ, Eider (2010): *Katu jendea*, Donostia: Elkar.
- RODRIGUEZ, Ileana (1994): *House, garden, nation*, Durham: Duke University Press.
- RODRIGUEZ, Ileana (1996): *Women, guerrillas, and love*, Minneapolis: University of Minnesota Press.
- SARRIONAINDIA, Joseba (1995): *Hnuy illa nyha majah yahoo*, Donostia: Elkar.
- SUAREZ, Castillo (2008): *Souvenir*, Donostia: Elkar.
- URIBE, Kirmen (2002): *Bilbao-New York-Bilbao*, Donostia: Elkar.
- URKIZA, Ana (2002): *Bazterreko ahotsa*, Donostia: Elkar.
- URRETABIZKAIA, Arantxa (2010): *3 Mariak*, Donostia: Erein.
- WITTIG, Monique (1973): *Le corps lesbien*, Paris: Les éditions de minuit.
- ZALDUA, Iban (2008): *Euskaldun guztion aberria*, Irun: Alberdania.